

## **“HERRION BURUJABETZAREN ALDE, EUROPAR BATASUNARI EZ”**

Europako eragile sozial, sindikal eta politikook honako manifestu hau sinatzen dugu, eta honakoa adierazten diogu kontinente osoko herriari:

Europar Batasunari uko egiten diogu, herrion eta langile klasearen dominazio politiko, ekonomiko, militar eta kulturalerako egitura bat delako eta, aldi berean, helburutzat sistema kapitalista, inperialista eta patriarkalari eustea duelako, gutxi batzuen mesedetan.

Garai latzetan bizi gara. Faxismoaren joera areagotzen ari da, arrazismoa eta xenofobia hedatzen, emakumeon eta gorputz disidenteon aurkako matxismoak eta indarkeriak ez du etenik, eskubide indibidual eta kolektiboak segunduro hausten zaizkigu, mugak gero eta zorrotasun handiagoz ixten, lan-eskubideak galtzarekin batera herritarron pobrezia maila errotzen ari da, lurraldeak eta tokiko nekazaritza suntsitzen, pribatizazio eta kapitalak exijitutako murrizketen garaietan murgilduta gaude, Europar Batasun barruko eta kanpotik datozen migrazio-exodoek hutsarazten dituzte etxeak, ezarritako boterearen aurkako mobilizazio, abeslari edo idazle oro gogor jazartzen da, herrion autodeterminaziorako eskubidea ukatzen, Estatu Batuen, Europar Batasunaren eta NATOren eraso inperialistak gogortzen ari dira, forma ezberdinetan. Eta zerrenda honek ez du amaierarik. Finean, herrion eta langile klasearen aurkako erasoen garaietan murgilduta gaude.

Baina, argi daukagu ez dela denborak sendatuko duen koiunturazko egoera bat; alderantziz, egiturazkoa da. Hau da, Europar Batasuneko botereek herriari ematen dioten erantzuna da, delako garapenari bide ematen jarraitzeko eta, hala, metaketa kapitalistaren sistemari eusteko. Izan ere, Europar Batasuna horretarako sortu zen, Europako eliteen interesak defendatzeko eta mantentzeko, aurpegi atsegina erakutsi nahi izan badigute ere.

Hori guztia kontuan izanda, argi adierazi nahi dugu ez dela posible Europar Batasuna aldatzea, ezinezkoa dela herrion eta herri klaseon interesei erantzungo dion Europar Batasun bat. Troika, Europako Batzordea, NATO, EUROPOL... erabat egitura antidemokratikoak dira, eta Europako Parlamentua inolako eraginik ez duten organismo parasitario bat, elite eta transnazionalen men egiten diena. Demokratizaziorako edozein alternatiba eraiki nahi bada, nahitaez, Europar Batasuna deseraiki eta herrion burujabetzan nahiz elkarren arteko elkartasunean oinarritutako integrazio eredu bat eraiki beharko dugu, egungo eremu geografikoaz harago.

Beraz, manifestu hau sinatzen dugun eragileok, elkartasun internazionalista areagotzeko eta Europar Batasunari alternatiba elkarrekin diseinatzen hasteko deia egiten dugu, herrion eta langile klasearen zerbitzura egongo den alternatiba.